

BIRZIKLAPENA

UDALERRIAN KARTOIA JASO EZ IZANAGATIK UDALAREN ERREKLAMAZIOA

BADIRA HAINBAT HILABETE ARABAKO FORU ALDUNDIAK KUDEATZEN DUEN KARTOIA JASOTZE ZERBITZUAK EZ DUELA FUNTZIONATZEN; ONDORIOZ, ERREKLAMAZIO ASKO EGITEN DABILTA, KARTOIA JASOTZE PUNTUETAN PILATUTA DAGOELAKO.



Arabako Foru Aldundiak dauka Gorbeialdeko Kuadrillan sortzen diren mota askotariko zerbitzuak jasotzeko eskumena, eta Aldundiak azpikontratatuta dauka Daorje enpresa horietako hainbat zerbitzu egiteko.

Daorje enpresa ez dabil Arabako Foru Aldundiarekin hitzartutako kontratua betetzen, eta Izarraren kasuan badira bi hilabete baino gehiago dagozkion edukiontzietan lagatako kartoia ez duela jaso. Hala, edukiontzia beteta daudenez, horien inguruan ere kartoia ugari dago, herritarren kalterako eta inguruak zikinduz.

Daorje enpresarekin arazo hauek hasi aurretik, zerbitzua Izarratik asteartero eta ostegunero pasatzen zen kartoia jasotzen; baina gaur egun ez du inork kartoia jasotzen.


Oraindik erregularizatu gabe

Daorje enpresarekin dagoen arazoa konpondu dela jakinarazi badute ere, oraindik ez da kartoia jasotzea gauzatu. Horren aurrean, Urkabustaizko Udalak onartezina deritzo oraindik ere kartoia ez jasotzea, eta lehenbailehen konponbidea ematea eskatzen du.

ETXEBIZITZA

UGARTE KALEKO ETXEBIZITZAK IRAILETIK AURRERA ALOKATU NAHI DIRA

UDALA ARI DA UGARTE KALEKO UDAL ETXEBIZITZAK KONPONTZEN ETA BERRITZEN ALOKAIRUAN JARTZEKO ASMOTAN.



Urkabustaizko Udalak hiru etxebizitza dauka Ugarte kaleko lehen zenbakian, farmaziaren gainean. Orain arte hainbat erabilera eman zaizkie, baina orain Udalak horietako bi alokairuan jarri nahi ditu. Hirugarrena eskolako irakasleek erabiltzen jarraituko dute.

Horretarako, lehen pisuko eskumako etxebizitzan berritze lan garrantzitsuak egin dira; hala nola, leiho guztiak eta balkoietako atak aldatu dira, igeltsertza lanak egin dituzte, instalazio elektrikoa eta berogailuak berritu dira, iturgintza lanak egin dira eta sukaldea egokitu da, besteak beste.

Hitzarmena Alokabiderek

Lanak 55.522 euroko (BEZ barne) kostua izan dute, eta Arabako Foru Aldundiak 13.450 euroko dirulaguntza eman dio Udalarari Toki erakundeetan Etxebizitzak Birgaitzeko dirulerrotik.

Udalak nahi du alokairuan jartzea bai orain berritu duten etxebizitza zein lehen pisuko ezkerrekoa, non hobekuntza lan txiki batzuk bukatzen dabilzan. Horren ostean, Udalaren asmoa da Alokabiderek hitzarmena sinatzea honek alokairuak kudeatu ditzan.

LABURRA

BERRERABILGUNE ZERBITZUA, ITXITA ABUZTUAN

Berrerabilgune zerbitzua itxita egongo da abuztu osoan. Irailean atak berrito zabalduko dituzte gauza gehiagorekin.

Berrerabilguneak bigarren bizitza bat izan dezaketen objektuen trukea ahalbideratzen du. Hau da, edozeinek

erabiltzen ez dituen gauzak gunera eraman ditzake eta/edo erabilgarriak izan daitezkeen gauzak hartu, dirua erabili gabe.

Zerbitzua Izarran, Larrazkueta kaleko 7. zenbakian kokatuta dago.

AURTEN URKABUSTAIZ EGUNA UNTZAN OSPATUKO DA

UDALERRIKO BIZTANLEENTZAT HITZORDU GARRANTZITSUA DEN URKABUSTAIZ EGUNAREN HELBURUA DA EUSKAL KULTURA SUSTATZEA ETA UDALERRIA OSATZEN DUTEN HERRIETAKO JAIK INDARTZEA.



Urkabustaiz Eguna alboratu ezinako hitzordua da, urtero udalerriko herrietako batean ospatzen dena. 2023an Goiur in izan zen, eta aurten, Untzan izango da, hain justu urriaren 12an, herri horretako jaiekin bat eginez.

Herrietako jaiak bultzatzea

Ekimen honek urte dezente ditu, eta herriko Lan eta Jolas elkarteak bi helbururekin sortu zuen: euskal kultura sustatzea, eta Urkabustaiz osatzen duten herrietako jaiak indartzea. Modu honetan, herriko jai batzordeei laguntza ekonomikoa eta boluntarioen laguntza ematen diete. "Herrietako jaiak eustea eta antolatzea gero eta zailagoa da, eta guk gure aletxoak jartzen dugu", azaldu dute Lan eta Jolas-etik. Izan ere, herrietan, nahiz eta hasieran harritu egitarau zabalagatik, zalantzarik

gabe zinez eskertzen dute eskaintzen zaien laguntza..

Egun osoko egitaraua

Modu honetan, edizio gehienetan egun osoko egitaraua antolatzen da, 13:00etatik 21:00ak bitarte gutxi gorabehera, eta herriak berak jaietarako aurreikusitako egitarauari Lan eta Jolas elkarteak egindako ekarpenak batzen zaizkio.

Untzaren kasuan dagoeneko bi batzar egin dira eta egitarauaren zirriborroa mahai gainean dago: mendi ibilaldia, herri kirolak, umeendako ekintzak, herri bazkaria, bingo musikatua, antzerkia, 'Dantza Plazan', DJak, kontzertua eta erromeria. Ia ezer!

Herri bazkarirako izenematea iraila hasieran zabalduko da, eta orduan egingo da deialdia txosnako txandak betetzeko, herri bazkarian laguntzeko...

MAGIALDIARABAK GELDIUNEA EGINGO DU BERRIRO UDALERRIAN

IRAILAREN 5EAN, MAGIA JAIALDIAK URKABUSTAIZERA MAGIA TAILERRA, TABERNETAKO EMANALDIAK ETA IMANOL ITUIÑOEN IKUSKIZUNA ERAMANGO DITU.

Urkabustaizko Udalak eta MagialdiArabako antolatzaileek denbora luzea daramate elkarrekin lan egiten. Horregatik, aurten ere jaialdiaren programazioaren zati bat udalerrian geldituko da.

Hitzordua irailaren 5ean izango da eta adin zein publiko askotarikoentzat ekintzak izango dira. 18:00etan, 7 eta 12 urte arteko ume eta gaztetxoendako magia tailerra egingo da. Horren ostean, 18.30ean, hainbat magia emanaldi azkar egingo dira tabernetan. Eta, bukatzeko, Imanol Ituiño euskal mago ezagunak ikuskizuna egingo du antzokian 19:30ean.

ANTZERKIA-ZIRKUA

UMOREZKO 'FINITO INFINITO' IKUSKIZUNA ABEZIAN

ABUZTUAREN 24AN, ARAIA-ASPARRENAKO UMOREZKO ANTZERKI JAIALDIAK IKUSKIZUN HAU EKARRIKO DU ABEZIARA, 19:30EAN.

Aspaldiko harremana eta elkarlana du Urkabustaizko Udalak Araiaiko Umerezko Antzerki Jaialdiarekin. Horren bitartez, udaro jaial-

diko ikuskizunen bat ikusteko aukera izaten da udalerrian.

Zirkua, antzerki fisikoa eta dantza lotzen ditu

Oraingoan, Buenos Aires-en jaio eta 2016tik Bilbon kokatuta dagoen Compañía Trotamundos-ek 'Finito Infinito' ikus-

kizuna eskainiko du Erdialdean, Abezian, 19:30ean. Ikuskizuna doan izango da.

'Finito Infinito' publiko guztiarentzako kale antzerki ikuskizuna da, borobilean antzezten dena, eta zirkua, antzerki fisikoa eta dantza batzen dituen; zirkularitateari buruz hausnartzen du, baina beti umore askorekin.

ABUZTUKO EGITARAUAK BATUKO DITU KONTZERTUAK, ZINEMA, JAIK, MAGIA ETA UMOREA

ABUZTUAN ZEHAR KONTZERTUAK, JAIK ETA BESTELAKO EKINTZAK IZANGO DIRA UDALERRIKO PUNTU DESBERDINETAN.



Kultura programazioak ez dauka etenik udalerrian ezta abuztuan ere. Ostiral honetan, abuztuak 2, Lobo & Carmine-ren kontzertuaz gozatu ahal izango da; Gasteizko bikoteak gitarra, armonika eta ahotsaz country emanaldi zabal eta interesgarria egingo du. Kontzertua Nordiska tabernan izango da, 20:00etan.

Hurrengo egunean, abuztuaren 3an, 'El carné' filma proiektatuko da 22:00etan, plazan. Aitasunaren esperientzia modu umoretsu ganberroan azaltzen duen film honen protagonistak Gorka Aginagalde, Elena Lombao, Lander Otaola eta Salva Reina dira, besteak beste.

Kontzertuak eta jaia Txiringitoan

Etenaldi labur baten ostean, abuztuaren 9an, Ostuñoko Txiringitoan, Onki Xin taldearen kontzertua izango da. Honako taldea eskarmentu handiko eta nekazekin diren Zigor DZk (Esne Beltza...) eta Fer Apoak

(Kuraia, El Corazón del Sapo...) sortu zuten, eta beste musikari batzuek lagunduta rock elektroniko dantzagarria egiten dute hitz oso kritiko eta irudimentsuekin.

Abuztuaren 17rako ere kontzertua iragarri dute Txiringitoan. Kasu honetan agertokia hartuko dute Amurrioko Alperrikako Bizien jabe bikote akustikoak eta Getariako Arrotzak taldeak punk iluna egiten; zein baino zein ikusteko zailak dira, taldekideek dituzten bestelako musika agenda estuen-gatik.

Horrez gain, abuztuaren 30ean Txiringitoaren denboraldi bukaerako jaia egingo da, baina oraindik ez da egitaraua ezagutzera eman.

Herrietako jaiei dagokionez, aurreratu dezakegu Abezian abuztuaren 23tik 25era ospatuko dituztela, Abornikanon abuztuaren 31 eta irailaren 1ean, Oiardon irailaren 7 eta 8an, eta Goiurin irailaren 13tik 15era.

GORBEIALDEKO KUADRILLAKO XXII. ARGAZKI LEHIAKETA

GORBEIALDEKO KUADRILLAK URTEROKO ARGAZKI LEHIAKETA ANTOLATU DU. IZENEMATEA URRIAREN 18AN AMAITUKO DA, ETA GAIA LIBREA IZANGO DA.

Gorbeialdea osatzen duten udalerrietan (Aramaio, Arratzua-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia) egindako argazkiak bakarrik onartuko dira.

Lehiakide bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu; lanak argitaratu gabeak eta beste lehiaketa batzuetan saritu gabeak izan beharko dira; originalak koloretakoak izan beharko dira, eta lanen formatuak horizontala izan beharko du, 2025eko hormako egutegian sartzeko.

Argazkiak jasotzeko epea 2024ko urriaren 18an amaituko da, ostirala.

13 sari banatuko dira

Lehiaketako sariak Gorbeialdeko Kuadrillako edozein negoziotan gastatzeko txartelak izango dira (atxikitako enpresen zerrenda emango da). Lehiaketako argazki irabazlea eta udalerrri bakoitzeko bi argazki sarituko dira: guztira 13 sari.

Horrela, lehen sariak 150 euroko txartela jasoko du, eta udalerrri bakoitzean bi sari banatuko dira: 100 eurokoa bata eta 75 eurokoa bestea.

<https://www.urbabustaiz.eus/eu/xxii-concurso-de-fotografia-de-la-cuadrilla-de-gorbeialdea/>





Dolores Ibárruri Gómez

1895-1989, Gallarta

Dolores Ibarruri meatze-familia batean jaio zen. Maisu-maistren Eskola Arruntean sartzeko eta irakasle-ikasketak egiteko prestakuntza-ikastaroa gainditu zuen, baina ikasketak utzi behar izan zituen eta jostun eta zerbitzari lanetan hasi zen. meatzari sozialista batekin ezkondu eta Muskizera joan ziren bizitzera; hamazazpi urtez egon zen berarekin ezkondua. Katolizismoa alde batera utzi zuen, baina beti fede erlijioso sakona izan zuen, aurrerantzean sozialismoari eta, 1920tik aurrera, komunismoari eskainia.

Bere lehen idazki politikoa, El Minero Vizcaino-n argitaratua, Pasionaria izengoitiarekin sinatu zen, zeinaren bidez, urte batzuk geroago, mundu osoan ezaguna izango zen. Laster lerrokatu zen komunismora igaro ziren bizkaitar sozialisten sektorearekin, eta 1920an Bizkaiko Alderdi Komunistaren batzorde probintzialerako hautatu zuten, urteetan zehar afiliatu komunista gehien izango zituen probintziarako. Militantzia komunista, prentsa eta propaganda-lanen bidez gauzatzen zuena, bere emazte eta ama bizitzarekin konbinatzen zuen. Espainiako Alderdi Komunistaren (PCE) Batzorde Zentraleko kide izendatua izan zen, garai hartan emakume batentzat ezohikoa zen izendapena.

Gerraren eta Faxismoaren aurkako Emakumeen Espainiako Batzordeko zuzendari ere izendatu zuten. Hurrengo urtean, PCEko Emakumeen Batzordearen Lehen Kongresuko buru izan zen. Moskuko Internazional Komunistaren Zazpigarren Kongresu ospetsuan parte hartu zuen, non Fronte Popularraren taktika berria iragarri zen. Nazioarteko Idazkaritzako ordezkari kide izendatu zuten. Espainiako komunisten artean legenda bizi gisa hartu zuten, eta Asturiaseko diputatu aukeratu zuten lehenengo hauteskunde demokratikoetan, eta Kongresuko adineko mahaiko presidenteorde izan zen.

Dolores Ibárruri nació en la en el seno de una familia minera. Superó el curso preparatorio para ingresar en la Escuela Normal de Maestras y realizar estudios de magisterio, pero tuvo que abandonar los estudios y comenzó a trabajar de costurera y sirvienta. Se casó con un minero socialista con quien estaría casada diecisiete años, y se trasladaron a Muskiz. Abandonó el catolicismo, pero siempre se mantuvo en una actitud de cerrada fe religiosa, en adelante consagrada al socialismo y, a partir de 1920, al comunismo.

Su primer escrito político, publicado en El Minero Vizcaíno fue firmado con el seudónimo de Pasionaria, por el cual, años más tarde, sería conocida en el mundo entero. Se alineó muy pronto con el sector de los socialistas vizcaínos que pasaron al comunismo, y en 1920 fue elegida para el comité provincial del Partido Comunista en Vizcaya, la provincia que durante años tendría el mayor número de afiliados comunistas. Combinaba la militancia comunista, concentrada en actividades de prensa y propaganda, con su vida de esposa y madre, fue nombrada miembro del Comité Central del Partido Comunista de España (PCE), distinción insólita para una mujer en aquella época.

Fue también nombrada directora del Comité Español de Mujeres contra la Guerra y el Fascismo. En el año siguiente presidió el Primer Congreso del Comité de Mujeres del PCE. Asistió al famoso Séptimo Congreso de la Internacional Comunista en Moscú, donde se anunció la táctica nueva del Frente Popular. Se la nombró miembro suplente del Secretariado de la Internacional. Entre los comunistas españoles fue recibida como una leyenda viva, y resultó elegida diputada por Asturias en las primeras elecciones democráticas y fue vicepresidenta de la mesa de edad del Congreso.